



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023IPLE0009

Eguna: 2023-06-17

Ordua: 13:30 – 13:55

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre EH Bildu
- Maria Otaegi Velez EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez PSE-EE (PSOE)

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

1. Adin mahaia eratzea
2. Zinegotzi berrien kargua hartzea
3. Korporazio berria eratzea
4. Alkatearen hautaketa
5. Alkatearen kargua hartzea

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Adin mahaia eratzea

Azaldu da Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako ziurtagiriak egiaztatu direla eta horren arabera, adin-mahaia honela osatzen dela:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Kargua	Izen abizenak
Hautetsi zaharrena	Joseba Ilari Etxeberria Calvo
Hautetsi gazteena	Manex Aldalur Beldarrain
Idazkaria	Kontxi Urdampilleta Santamaria (Udal idazkaria)

2.- Zinegotzi berrien kargua hartzea

Mahaiak azaldu du, Eskualdeko Hauteskunde-batzordeak igorritako aldarrikatze agiriak, hautetsiek idazkaritzan aurkeztutakoekin elkartu dituela eta bat datozela.

Bestetik, adierazi da zinegotzi hautetsi guztiek legeak eskatutako aitorenak egin (ondasuna, jarduera eta bateraezinasuna) eta zergak informazioa aurkeztu dituztela.

Beraz, Udal honetako korporazio berriko zinegotzi hautetsiei deitu zaie kargua hartzeko osoko bilkuran eserlekua har dezaten.

Euskal Herria Bildu (EH Bildu)

Xabier Urdangarin Lasa
Ainara Vazquez Martinez
Naroa Del Orden Otero
Aitor Guemes Oiarbide
Andoni Gartzia Arruabarrena
Estibaliz Neira Martinez
Beatriz Lasagabaster Izagirre

Euzko Alderdi Jeltzailea – Partido nacionalista vasco (EAJ-PNV)

Maria Otaegi Velez
Iñigo Touzani Velasco
Olaia Pastoriza Santos

Partido socialista de euskadi- Euskadiko ezkerria (PSOE) (PSE-EE (PSOE))

Patxi Suarez Perez

Jarraian uda-idazkariak zinegotzietan zina edo juramentua hartu die, horretarako galdera hau eginaz:

“Zin egiten duzue Zinegotzien egin beharrak zintzo eta Legea errespetatuz beteko dituzuela?”

“juráis o prometéis desempeñar fielmente las obligaciones del cargo de concejal respetando la ley?””

Zinegotzi guztiek zin egin dute, eta karguaren jabetza hartu dute.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

3.- Korporazio berria eratzea

Kontuan harturik batzarrean gehiengo osoa bermatu dela, adineko mahaiak Udalbatza eratutzat jotzen duela jakinarazi du idazkariak.

4.- Alkatearen hautaketa

Idazkariak gogoratu du, 5/85 Legeak agintzen duenaren arabera, alkatea aukeratzeko honako hauek hartu behar direla kontuan:

- Zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango dela alkate, hau da, gutxienez 7 boto lortzen dituenak.
- Inork ez balu gehiengo osoa lortuko, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia, izango dela alkate.
- Alkatea aukeratzeko zinegotzi diren zerrenda buruak direla hautagai. Beraz, kalkategaiak honako hauek izan daitezke:

1. Xabier Urdangarin Lasa
2. Maria Otaegi Velez
3. Patxi Suarez Perez

Jarraian udal idazkariak hitza eskaini die alkategaiei, eta inork ez zuenez ezer adierazeko, bozketari ekin zaio. Horretarako udaltzain agenteak postontzia pasa die banan-banan zinegotziei, bakoitzak bere bozka-txartela sartzeko:

Bozkaren emaitza, honakoa izan da:

BOTOAK	GUZTIRA
Xabier Urdangarin Lasa	8
Juan Martín Arregui Sagües	4
Abstentzioak	1
Guztira / Total	13

Kontuan harturik XABIER URDANGARIN LASAk 8 boto lortu dituela , alegia, gehiengo osoa lortu duela, mahaiak aldarrikatu du Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako Alkatea hautatua izan dela.

5.- Alkateak bere kargua hartzea

Ione Olatziregi Mendiorotz zinegotzi ohiak alkatetzaren ikurra eraman dio alkateari. **Eta ondoren**, legeak xedatutakoa jarraiki beharrezkoa denez alkateak bere kargua zin egitea, idazkariak zina hartu dio galdera hau eginaz:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

“XABIER URDANGARIN LASA zin egiten duzu Alkatearen karguaren eginbeharrak zintzo beteko dituzuela eta Legeari men egingo diozula?”

Alkateak baiez erantzun du. Beraz, XABIER URDANGARIN LASAk karguaren jabetza hartu eta onartu du.

Jarraian alkateak hitza hartu eta hitzez hitz honako hau adierazi du:

“Egun on denoi, herritarroi, lagunei, familiakoei, komunikabideei eta jakina, idazkari andreari. Eta, bereziki, utzidazue egun on esaten korporaziokideei, zuengan, gudan datzalako astigartarren borondatea herria gobernatzeko. 13 lagun, 13 herritar, Astigarragako Udala gobernatzeko eta udal eskumeneko zerbitzu eta proiektuak aurrera ateratzeko erantzukizuna dugunak. Ardura handia da, inola ere. Eta gogotsu gatoz, erronkari heltzera.

Hitzaldi jaso eta ondua ematea erabaki dut gaur, bertsoak alde batera utzita. Izango da abagunerik horretarako.

Gaur kargua hartu eta alkate hautatu nauzue. Lanerako gaude eta hogeitau egunen buruan udala antolatzeke bilkura egingo dugu, ondo bidean uztailearen 4an, batzordeak antolatzeke, batzordekideak eta udalaren ordezkariak izendatzeko eta beste hainbat gai erabakitzeko, hitz bitan, agintaldia ibilian jartzeko. Korporazioko kideok, jakizue, orain arte bezala, nire bulegoko atea zabalik duzuela, lankidetzarako eta astigartarren onerako den edozertarako. Amaitu berri den agintaldian plenoko eta tokiko gobernu batzarreko erabakien %80 aho batez hartu dugu eta ziur naiz hastapenetan dugun legegintzaldi honetan ere horrela izango dela.

Udal langileoi nire eta gure esker ona azaldu nahi dizuet, azken lau urteetako lan martxaren emaitza zuena ere badelako. Ez dugu, ez dute fama onik funtzionarioek, txiste askoren jomuga izan ohi dira, izan ohi gara. Ez dut uste langile publikoak enpresa pribatuetako langile edo arduradunak baino okerragoak direnik, hobeak ere ez seguru asko. Alabaina, egiaz pentsatzen dut udaletxean jardutea, bestela esan, zure herrikideentzat aritzea, gauza ederra dela eta aberasgarria, batzuetan merezi gabeko kexa edota errietak entzun behar izaten badira ere. Izan bitez hitz hauek udal langileen lana goraiatzeko eta aitortzeko.

Hari mutur beretik, Lazkao Txikik esana da “politikan ez da gauza politikan”. Politikari eta zinegotzietan buruz ere arrazoiz betetako kritiken ondoan, ospe txarra eta kritika gaiztoa nagusitzen dira batzuetan. Uste dut politikagintzari, zinegotzi izateari merezi duen aitortza egin behar zaiola, ahalegin eta konpromiso handia eskatzen duelako. Zer esanik ez, hainbat agintaldi egin dituzten zinegotzien kasuan. Aitortza horren isla, gaur lone Olatziregiri eskatu diot aginte makila emateko. Eskerrik asko agintaldiz agintaldi zuen ahalegina Astigarragari eman diozuen herrikideoi.

Aurrez aurre ditugun lau urteok ez dira alferrik izango, urrats handiak egingo baititugu hainbat arlotan, Astigarraga hobetzeko. Eta horren xedea, bestela ezin izan, bakarra da, astigartarrok gure etxean, gure herrian ondo bizitzea eta elkar zaintzea. Agintaldi oparoa izango delakoan nago, lan askokoa bezain aberatsa eta aberasgarria, lanotan ibiliko garenontzat. DBHko ikastetxea, herri eskola handitzeko obrak, aldiriko tren geltokia... bidean datoz. Hastapenetan beste hainbat ekipamendu: kiroldegia, ambulatorio berria, adinekoen espazioa, hainbat hiritartze proiektu... Arnas luzeko egitasmoak dira, urte askoko lana behar dutenak. Baina, hasi ezean ezin dira horrelakoak burutu eta gure asmoa bururaino eramatea da. Ekipamendu eta obrak aipatu ditut, ekipamenduetan buruz hitz egiten dugu sarri, asko direlako, gehiegi, biztanle kopuruan hainbeste hazi den gure herri hau berdintzeko behar ditugunak. Baina, ekipamendu horiek jendearentzat dira, guretzat, haur, gazte, heldu, adineko... hobeto bizitzeko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Babes sozial handiko herri bat izan nahi dugu, eta bagara, gizarte zerbitzuen arloan urrats aipagarriak egin ditugulako eta aurrekontuaren ia %10 gizarte zerbitzu eta babeserako erabiltzen ari garelako. Hor jartzen dute batzuk, %10ean, udalen esparruan gizarte zerbitzuen eta babes sozialaren bikaintasunaren langa.

Euskararen agintaldia izango da hau, bai Astigarragan eta bai udaletxean, ziur nago. Korporazioko kide berriak ezagutzen ari naiz eta, hara, astigartarren ugaritasuna ikusten dut, eta euskara ikasten eta hobetzen ahalegin ikaragarria egin dtuen eta egiten ari zareten pertsonak. Patxi, Iñigo, Joseba, euskara ikasten jo eta su, euskaraz egiteko eta bizitzeko konpromiso eredugarriarekin. Ainara euskara teknikaria, Maria euskara irakaslea... Bejondeizuela.

Pertsonalki, pozarren nago, orain urtebete ez nuen asko uste gaur hemen egongo nintzenik, are gutxiago alkate makila eskuetan hartuta. Urte hau ez da alferrik joan eta hasierako gaixoa gaituta eta hemen nago berriz, bizi-bizirik, pozik eta itxaropentsu.

Eskerrak eman nahi dikizuet astigartarroi, Euskal Herria Bilduren jarri duzuen konfiantzarengatik. 8 zinegotzi, gehiengo osoa eta alkatetza bigarrenez jarraian... Ez dizuegu, ez dizuet hutsik egingo, ez botoa eman diguzuenoi, ez botoa beste alderdiei eman diezuenoi, ez eta ere botorik eman ez duzuenoi.

Amaitzen hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot familiari, amari, aitari, anai arrebei, ilobei (hemen zaudete batzuk...)... Baita ere plazako familiari, Aran, Irati, Jaouad, Luar, Mila, Agustin... Eta eskerrik asko, etxeko lauoi, Ekhi, Aner, Ganix, eta kantak dioen bezala, lehenik aitari, gero amari, gero anai arrebari eta azken orduan isili isilik, zuri, Kizkitza, eskerrik asko.

Ahalegin zintzoa egingo dut, amak hala eskatu dit berriz eta, zintzo aritzeko. Zintzo hori ez da "txintxo portatu", baizik eta "zintzo jokatu", justiziaren, nor izatearen eta hitzekoa izatearen adierarik gorenean.

Egiari zor, gezur ttiki bat esan dizuet hasieran. Hasieran ez nuen asmorik, baina azken orduan isil-isilik, bi bertso prestatu ditut.

*"Politikan ez dago
gauza politikan",
gure Lazako Txikik
esanagatikan
**ohore haundia da
ez izan dudikan,
eskerrik asko denoi
barru-barrutikan.***

*Badaukagu gogua,
badegu indarra,
badago zer egina,
zer ondu beharra.
**Gaur da agintaldiko
lehenengo zizarra.
Ehun da ehun berrehun eta
aupa Astiarra.***

Eskerrik asko denoi eta gora Astigarraga!"

Bukatzeko, alkateak hartu eskaini die beste hautagaiei, baina horiek ez dute ezer adierazi.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

13:55ean alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko ekainaren 17an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria